



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

**2020/04/02an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 02/04/2020.**

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Iñaki Kerejeta Gorostiza

#### Idazkaria

Edume Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko apirilaren 2an, arratsaldeko 17:30ean, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla, telematikoki bildu da Udalbatza, ez ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 2 de abril de 2020, en sesión telemática quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

**2020/04/02**  
**Ezohiko Osoko Bilkura**  
Pleno extraordinario



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

### **1. GAI ZERRENDAN GAI HAU SARTZEA BERRESTEA:**

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hau sartzea:

### **2.- ALARMA EGOERAK IRAUN BITARTEAN UDAL HONETAKO GOBERNU ORDEZKARITZA-ORGANOEN (Udalbatzarra eta batzorde informatzaileak) BILKURAK BIDEOKONFERENTZIAZ EDO ANTZEKO SISTEMA TEKNOLOGIKOEN BIDEZ EGITEKO ERABAKIA.**

Osasunaren Mundu Erakundeak joan den urtarrilean adierazi zuen Covid-19ari buruzko egoera nazioarteko garrantzia duen osasun publikoko larrialdi bat zela.

Covid-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemia bihurtu zuen erakunde horrek 2020ko martxoaren 11n.

Osasun sailburuaren eskariz, Eusko Jaurlaritzako Seguritasuneko sailburuak, 2020ko martxoaren 13an, Covid-19ren hedapenak eragindako osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean Euskadiko Babes Zibileko Plana (Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-Labi) formalki aktibatzea erabaki zuen.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako Estatuko lurralde osoan alarma-egoera ezarri zen Covid-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko. Errege-dekretu hori martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

COVID-19ren hedapena murrizteko osasun-agintariek emandako gomendioek agerian utzi dituzte lan ez-presentzialaren -posible den lanpostuetan- modalitatearen onurak COVID-19a hedatzeko eta kutsatzeko probabilitatea murrizteko duen ahalmen potentzialagatik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-erakundeetako kide anitzeko organoen funtzionamendu-araubidea arautzen duenean, ez du berriaz ezer aurreikusten saio telematikoak egiteari dagokionez.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezer ez esan arren, bada kontuan hartzeko lege-erreferentzia bat Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean. Lege horretako 17.1 artikuluan honako hau jasotzen da berriaz:

#### **17. artikulua. Deialdiak eta bilkurak.**

*1. Kide anitzeko organo guztiak eratzeko eta organo horiek bilerak deitu eta egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da, salbu eta beren barne-erregelamenduan kontrakoa espresuki eta salbuespen gisa jasotzen bada.*

*Kide anitzeko organoek urrutitik egindako bilkuretan, kideak toki desberdinetan egon ahalko dira, betiere baliabide elektronikoaren bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere) bermatzen bada kideen edo kideak ordeztan dituzten pertsonen identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea*

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

**2020/04/02**  
**Ezohiko Osoko Bilkura**  
Pleno extraordinario

## Idazkaritza-Kontuhartzaitza

*nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla. Besteak beste, baliabide elektronikoa baliadunak izango dira, esaterako, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.*

Arau hori administrazio-organoei aplika dakiekeen arren, ez zaie zuzenean aplikagarria tokiko ordezkari-organoei, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren 4/2015 Legearen 21. xedapen gehigarriarekin bat etorritz, berariaz baztertzeko baitu lege horretan xedatutakoa organo horiei aplikatzea.

Hala ere, zuzenean aplikatu ezin izateak ez du esan nahi analogiaz aplikatu ezin denik, izan ere, Kode Zibilaren 4.1 artikulua araberak, arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera denean.

Horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean gobernuko kide anitzeko organoen bilera ez-presentzialen kasuak ez arautzeak dakarren hutsunea guztiz osa daiteke 40/2015 Legearen 17.1 artikulua xedatutakoarekin, bi kasuetan erabateko arrazoi-identitatea dagoelako.

Horri guztiari gehitu behar zaio neurri horren bidez Udal honen eta bere kide anitzeko organoen funtzionamendua gauzatu nahi dela salbuespenezko egoera batean, hau da, deklaraturako alarma-egoera eta osasun-larrialdiko egoera batean, eta baita zinegotzien parte-hartze politikoa eta haien ordezkari-funtzioa bermatzea ere, ordezkari-funtzio horren muina honako ahalmen hau izanik (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 1eko 30/2012 epaia): *“Tokiko gobernuaren kontrol-jardueran parte hartzea, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren eztabaidetan parte hartzea, organo horretan bozkatu beharreko gaietan botoa ematea, eta aurreko ordezkari-funtzioak gauzatu ahal izateko behar den informazioa eskuratzeko eskubidea izatea”.*

Aurrez esandako guztian oinarrituta, Udalbatzarak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, eta horrekin legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Zinegotziek urrutitik, bideokonferentzia bidez edo antzeko beste prozedura baten bidez, parte hartu ahal izango dute Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkuraren eta batzorde informatzaileen bileretan Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoerak irauten duen bitartean.

**BIGARRENA.-** Saioretan urrutitik parte hartzeko sistemak bete behar dituen funtsezko bermeak honako hauek izango dira:

- Bi norabideko komunikazioa egotea igorlearen eta hartzailearen artean, eta aldi berekoa izatea, biek batera emititu ahal izateko.
- Komunikazio hori, gutxienez, hauetako alderdi batean izatea: ikusmenezkoa, entzumenezkoa edo ahozkoa; horrela, komunikazioa etentzat joko da alderdi guztietan eteten denean.
- Nolanahi ere, aurrez aurreko eskubide eta betebeharrak berberekin parte hartu ahal izatea bilkuran urrutitik, Konstituzioaren 23. artikuluan aitortutako eskubideak erabat bermatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Udalbatzaren eta batzorde informatzaileen bilkuretan urrutitik parte hartzeko bideokonferentzia-sistema bat edo antzeko prozedura bat erabiliko da, zinegotzien nortasuna, bilkuran aztertu beharreko gaien eztabaidan parte hartzea, beraien adierazpenen edukia, botoaren nondik norakoa eta botoa emateko askatasuna bermatzeko.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

2020/04/02  
Ezohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Arazo teknikoak direla eta, gai bati buruzko eztabaidan zehar edo bozketan zehar komunikazioa eteten bada aurreko puntuan aurreikusitako edozein alderditan, eta komunikazio hori ezin bada berrezarri, etenaldiaren eraginpeko zinegotzia bilkuran ez dagoela joko da, ez baitago ziurtasunik bilkuraren zati horretan egon denik esateko, eta toki-araubideari buruzko legeria aplikatuko da gai horri dagokionez.

**LAUGARRENA.**- Parte hartzeak. Bilkuretan parte hartzeko hurrenkera ohikoa izango da; horrela, urrutitik parte hartzen dutenek bilkuran bertan egongo balira parte hartuko luketen hurrenkera berean parte hartuko dute.

**BOSGARRENA.**- Bozketak. Bilkuretan erabili ohi diren eta Udal Erregelamendu Organikoan jasota dauden bozketa-sistemetak bati jarraituz egingo dira bozketak. Kasu horietan, bozketa modu berean egingo da bertaratzen diren zinegotzientzat eta urrutitik ari direnentzat.

**SEIGARRENA.**- Erabaki horiek hartzen diren unean sartuko dira indarrean, eta indarrean egongo dira alarma-egoerak dirauen bitartean.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 17:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

**2020/04/02**  
**Ezohiko Osoko Bilkura**  
**Pleno extraordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

### **1. RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DEL SIGUIENTE ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DIA.**

Por unanimidad de todos los asistentes, se acuerda ratificar la inclusión del siguiente asunto dentro del orden del día.

### **2 ACUERDO SOBRE LA CELEBRACIÓN DE SESIONES MEDIANTE SISTEMAS TECNOLÓGICOS DE VIDEOCONFERENCIAS O SIMILARES POR PARTE DE LOS ÓRGANOS REPRESENTATIVOS DE GOBIERNO DE ESTE AYUNTAMIENTO (Pleno y Comisiones Informativas) MIENTRAS DURE LA DECLARACIÓN DE ESTADO DE ALARMA**

La Organización Mundial de la Salud declaró el pasado mes de enero que la situación en relación al Covid-19 suponía una emergencia de salud pública de importancia internacional.

El 11 de marzo de 2020 dicha organización elevó la situación de emergencia de salud pública ocasionada por el Covid- 19 a pandemia internacional.

Con fecha 13 de marzo de 2020 la Consejera de Seguridad del Gobierno Vasco acordó, a solicitud de la Consejera de Salud, la activación formal del Plan de Protección Civil de Euskadi, Larrialdiei Aurrigitoko Bidea-Labi, ante la situación generada por la alerta sanitaria derivada de la propagación del Covid-19.

Por Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se declara el estado de alarma en todo el territorio del Estado Español para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19. Dicho real decreto fue objeto de modificación por el Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo.

Las recomendaciones de las Autoridades Sanitarias dirigidas a reducir la expansión del COVID-19 han puesto de manifiesto los beneficios de la modalidad del trabajo no presencial, en aquellos puestos en que resulta posible, por su capacidad potencial de reducir la probabilidad de expansión y contagio por COVID-19.

La Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local (LBRL), cuando regula el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados de las entidades locales, nada prevé expresamente respecto a la celebración de las sesiones telemáticas.

Pese al silencio de la LBRL, existe una referencia legal a tener en cuenta en la Ley 40/2015 , de Régimen Jurídico del Sector Público. El art. 17. 1 de dicho texto normativo contempla de forma expresa:

#### ***Artículo 17. Convocatorias y sesiones.***

*1. Todos los órganos colegiados se podrán constituir, convocar, celebrar sus sesiones, adoptar acuerdos y remitir actas tanto de forma presencial como a distancia, salvo que su reglamento interno recoja expresa y excepcionalmente lo contrario.*

*En las sesiones que celebren los órganos colegiados a distancia, sus miembros podrán encontrarse en distintos lugares siempre y cuando se asegure por medios electrónicos,*

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

**2020/04/02**  
**Ezohiko Osoko Bilkura**  
Pleno extraordinario

## Idazkaritza-Kontuhartzailletza

*considerándose también tales los telefónicos, y audiovisuales, la identidad de los miembros o personas que los suplan, el contenido de sus manifestaciones, el momento en que éstas se producen, así como la interactividad e intercomunicación entre ellos en tiempo real y la disponibilidad de los medios durante la sesión. Entre otros, se considerarán incluidos entre los medios electrónicos válidos, el correo electrónico, las audioconferencias y las videoconferencias.*

Si bien dicho precepto es aplicable a los órganos de carácter administrativo, no es directamente aplicable a los órganos representativos locales de acuerdo con la Disposición Adicional 21 de la propia Ley 4/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, pues excluye de forma expresa la aplicación de lo dispuesto en dicha ley a dichos órganos.

No obstante, el hecho de que no se pueda aplicar directamente no quiere decir que no se pueda aplicar por analogía, dado que el art. 4.1 del Código Civil dispone que procede la aplicación analógica de las normas cuando éstas no contemplan un supuesto específico, pero regulen otro semejante entre los que se aprecie identidad de razón.

Así la laguna que supone la no regulación de los supuestos de reuniones no presenciales de los órganos colegiados de gobierno en la LBRL, puede perfectamente completarse por lo dispuesto en el art. 17.1 de la Ley 40/2015 por existir plena identidad de razón en ambos supuestos.

A todo ello hay que añadir que con dicha medida se trata de hacer efectivo el funcionamiento de este Ayuntamiento y el de sus órganos colegiados en una situación de excepcionalidad cual es la declaración de un Estado de Alarma y el de Emergencia para la Salud, así como garantizar el ejercicio de la participación política de los concejales y el ejercicio de su función representativa, a cuyo núcleo pertenece la siguiente facultad (Sentencia 30/2012 de 1 de marzo, de Tribunal Constitucional) : *participar en la actividad de control del gobierno local, la de participar en las deliberaciones del Pleno de la corporación, la de votar en los asuntos sometidos a votación en este órgano, así como el derecho a obtener la información necesaria para poder ejercer las anteriores*”

Con base a cuanto antecede, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, que constituye el quorum de la mayoría absoluta, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Los Concejales y Concejales podrán asistir a distancia a las sesiones del Pleno y al de la Comisiones Informativas del Ayuntamiento de Eskoriatza, mediante videoconferencia u otro procedimiento similar mientras dure la situación de Estado de Alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionado por el Covid-19

**SEGUNDO.-** Las garantías esenciales que en todo caso debe observar el sistema de asistencia a distancia a las sesiones serán las siguientes:

- Que haya comunicación bidireccional entre el emisor y el receptor, y simultánea, de tal manera que ambos pueden emitir a la vez.
- Que dicha comunicación se de como mínimo en alguno de estos aspectos: visual, auditiva y verbal, de tal manera que cuando se interrumpan todos se tendrá por interrumpida la comunicación.
- Que, en cualquier caso, se pueda participar a distancia en la sesión con los mismos derechos y obligaciones que presencialmente, con el fin de garantizar completamente los derechos reconocidos en el artículo 23 de la Constitución.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

2020/04/02  
Ezohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

**TERCERO.-** La asistencia a distancia a las sesiones del Pleno y de las Comisiones Informativas se realizará mediante un sistema de videoconferencia u otro procedimiento similar que garantice la identidad del concejal o concejala, su participación en el debate de los asuntos a tratar en la sesión, el contenido de sus manifestaciones, el sentido de su voto y su libertad para emitirlo.

En el caso de que, por circunstancias técnicas, se interrumpa la comunicación en cualquiera de los aspectos previstos en el apartado anterior, durante el desarrollo del debate en un asunto o durante su votación, sin que la misma pueda ser restablecida, se considerará que el concejal o concejala afectados por la interrupción no se encuentran presentes, al no tenerse constancia de su asistencia en esta parte de la sesión, resultando de aplicación la legislación de régimen local en esta materia.

**CUARTO.-** Intervenciones. El orden de las intervenciones en la sesión será el ordinario, de tal manera que los intervinientes que asistan a distancia lo harán en el mismo orden en que lo harían si asistieran presencialmente a la sesión.

**QUINTO.-** Votaciones. Las votaciones se realizarán siguiendo alguno de los sistemas de votación habitualmente utilizados en las sesiones y recogidos en el Reglamento Orgánico Municipal. En estos supuestos, la votación se desarrollará de idéntica forma para los concejales y concejalas que asistan presencialmente y los que asistan a distancia.

**SEXTO.-** Estos acuerdos entrarán en vigor en el momento de su adopción y estarán vigentes mientras dure la situación de declaración de Estado de Alarma.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:50 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB1XP6.1diU>

**2020/04/02**  
**Ezohiko Osoko Bilkura**  
**Pleno extraordinario**